

## BIZI SAGARDOA

<b>MOTA: BATZARRA (1)</b>	
<b>HELBURUA: SAGAR ETA SAGARDO KULTURA ETA TURISMOA</b>	
<b>DATA: 2013.05.29</b>	<b>LEKUA:Usurbilgo Potxuenea Aretoan.</b>
<b>ORDUA: 15:00-17:00</b>	

### 1) Helburu nagusiak zerrendatu / Enumerar los objetivos principales

Sagardoa da horrelako proiektu batean Euskal Herri guztia bildu lezakeen produktu bakarretako bat eta eragile guztiak elkartzea izango da helburuetako bat. Tokian tokiko Landa garapenarekin oso lotutako proiektu bat dela ikusten da eta hori islatzen jakin beharko luke BIZI SAGARDOAK. Esperientziak sortu eta esperientziak saltzen jakin behar dugu.

Bazkide asko gaudela ikusita, lan martxa eta metodologia sendotzea izango da oraingo helburua eta eragile berriak sartzen joango dira, elkarteak funtzionatzen duen heinean.

Lehenbailehen Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailera eta Basquetourrera joan behar da proiektua azaltzera eta aurrera eman litezkeen pausoak zehaztera.

Ondoren zerrendatzen diren proiektu, egitasmo eta ideiak martxan jartzea da beste helburuetako bat.

*Uno de los objetivos será reunir todos los agentes interesados en participar en BIZI SAGARDOA y fortalecer la metodología de trabajo, poniendo así en marcha los proyectos, planes e ideas que se enuncian a continuación.*

*Es necesario exponer el proyecto BIZI SAGARDOA en el Departamento de Turismo del Gobierno Vasco y en Basquetour y definir los pasos que se darán a continuación.*

### 2) Web orria / Página web

Web orri bat egitea garrantzitsua ikusi da, guztion plataforma gisa. Hasiera batean oinarritzko web orri bat beharko litzateke, blog bat eta sare sozialak ere berekin izango dituen eta denborarekin zabaltzeko aukera emango duena. Guztion artean sagardoaren inguruko mundua azaltzea da asmoa, bakoitzaren

nortasuna galdu gabe. Guztiok berriro ahal izango dugun web orri bat behar dugu, BIZI SAGARDOAko eragile desberdinek beren proposamenak sartu ahal izateko. Zerbitzuen sal-erosketari dagokionean, horrelako proiektu asko daude lehen ere eta proposamen berriak ikusi arte gehiegi ez zehaztea erabaki da. Diru laguntzak eskatzeko bidea hasi da (BIZI SAGARDOA inskribitzeko hilabete batzuk pasako direla ikusita, Sagardogileen Federaziotik eskatu liteke laguntza hau denborarik ez galtzeko).

*Es importante crear una página web, la plataforma de la sidra donde todos los agentes podamos participar dando a conocer le mundo de la sidra, pero sin perder la identidad de cada uno. Además ligarla a las redes sociales etc. Además, hemos dado los primeros pasos en cuanto a la solicitud de ayudas económicas (se podría hacer a través de la Federación de Sidra Natural para agilizar el proceso).*

### **3) Urteko Egitaraua / Programa del año**

Aktarekin batera orri bat bidaliko zaie Elkartekide guztiei, sagardoaren inguruan egiten diren ekintza guztiak sartzen joateko. Horrela egitarau zabala osatuko dugu denon artean eta horren inguruko promozioa egiteko moduan izango gara.

*En el acta, se adjuntará un documento para que los socios incluyan todas las actividades que realicen relacionadas con las sidra con el objetivo de crear un programa amplio y promocionarlo.*

### **4) Herrialdeka eta herriz herri aurkezpenak antolatzen jarraitu / Continuar organizando presentaciones en los diferentes territorios y localidades**

Bizkaian, Araban eta Iparraldean aurkezpen bat egitea garrantzitsua ikusten da. Hori herrialde bakoitzak ikusi behar du eta guztiok ahal dugun heinean aurkezpenean lagundu. Hauek izango lirateke aurkezpen orokorrak. Horrez gain, zenbait herritan aurkezpenak egiteko interesa ere badago eta kasu horietan herriak berak aukeratu lezake leku eta formato egokia: beste egitarau baten

bueltan egitea adibidez. Helburua da BIZI SAGARDOAREN sorrera eta filosofia zabaltzea ahalik eta gehien.

*Para difundir el nacimiento y filosofía de BIZI SAGARDOA, es importante hacer una presentación general en Bizkaia, Araba e Iparralde. Podrían celebrarse además en diferentes localidades integrándose en algún otro programa.*

#### **5) Sagardoaren turismoari begirako oinarrizko formazioa / Formación dirigida al turismo de la sidra**

Sagardoaren turismoari begirako oinarrizko ikastaro bat prestatu behar da herrialde desberdinetan eman ahal izateko. Informazio turistikoa puntuetan dagoen jendea, hoteletako jendea, Nekazal Etxeak... turismoarekin lotura duten eragileei zuzendutako ikastaroa izango da batetik sagardoaren mundua zer den azaltzeko eta sagar eta sagardo sektoreko jendeari zuzendutako oinarrizko ikastaro bat ere komeni da, sagardoaren turismoa zer den azaltzeko. Zuzendaritzaren lanetako bat izango da hau osatzen joatea.

*Se ve necesario organizar un curso básico sobre el mundo de la sidra, dirigido a agentes turísticos: puntos de información, hoteles, Agroturismos... Sería interesante organizar otro curso dirigido al sector sidrero, para explicar los fundamentos y la importancia del turismo de la sidra.*

#### **6) Antolakuntza orokorra / Organización general**

Bi organo nagusi izango ditu Elkarteak: batetik batzarra, kide guztiek parte hartuko dutena eta urtean behin edo bitan elkartuko dena eta bestetik zuzendaritza batzordea, eguneroko lanaren zama eramango duena. Zuzendaritza hamabostean behin biltzea garrantzitsua ikusten da Elkarteak abiadura hartu dezan. Zerrenda bat pasako da kide guztiek beren datuak jartzeko eta zuzendaritzan parte hartu nahi duen jendeak izena emateko.

*La Asociación estará compuesta por dos órganos principales: la asamblea (donde participarán todos los socios) y la junta directiva. Resulta importante que la junta directiva se reúna cada quince días aproximadamente. Se repartirá una lista para que todos los socios que deseen participar en la junta directiva se inscriban.*

## **7) Zenbait Udal eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamena / Propuesta de varios Ayuntamientos y Diputación Foral de Gipuzkoa**

Zenbait Udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak proposamen bat egin dute, sagardoaren turismoaren inguruan Elkartea berri bat sortzeko, Sagarbide izenarekin. Guztion artean Elkartea bakarra sortzea garrantzitsua dela ikusten da eta horretarako negoziatzea ez da gaizki ikusi. Negoziazioak BIZI SAGARDOAREN izenean egingo dira hemendik aurrera eta BIZI SAGARDOAREN estatutuak hartuko dira negoziazio horretarako oinarri gisa. Turismoaren gaian haustura batetik abiatzea ez da ona, turistak hori ez lukeelako ulertuko eta indar asko galduko litzatekeelako. Ahal bada denok batera joan beharko genuke, baina BIZI SAGARDOAn biltzen diren oinarriak errespetatuta beti ere. Gai honetan ematen diren pausoen berri emango da jendea informatuta egoteko.

*Varios Ayuntamientos y la Diputación Foral de Gipuzkoa han propuesto crear la asociación Sagarbide, relacionada con el turismo de la sidra. Sería importante crear entre todos una única Asociación, para tener mayor fuerza, respetando siempre las bases de BIZI SAGARDOA. Por lo que todas las negociaciones se realizarán en nombre de BIZI SAGARDOA, tomando como base los estatutos de BIZI SAGARDOA.*